



Azkeneko aldiz, 2016ko Irungo koadrila egunean egin zen Kamiseta lehiaketa. Lagun talde askok parte hartzen zuten eta ordutik koadrilei ohiturarekin segitzea esaten genizuen.

Aurten, **Antxeta Irratiaren partaidetzarekin** 2024ko ekainaren 22an larunbatarekin egingo den Irungo Koadrilen Egunean **Kamiseta lehiaketa berreskuratzea lortu dugu**. 10. Kamixeta lehiaketa izango dugu Antxeta irratitari esker.

Kamiseta lehiaketaren **azken edizio ikusita** aurtengorako **gauza batzuk moldatzea adostu** da. Hala nola, **lehiaketa kamisetetatik bandera edota afixtetara zabaltzea** eta **16 urtetik gorako guztientzat izatea**. Eta nola ez, **betiko moduan lehiaketan parte hartuko dutenen diseinuak euskaraz izan beharko** dute.

IZEN EMATE PROZESUAREN DISEINUA ETA EPAIMAHAIA

Kamiseta lehiaketako izen emate prozesuari dagokionez, **Betti Gotti elkartearen webgunean atari bat irekiko** da. **Bertan, helbide elektronikoko bat** agertuko da eta **parte hartzaileek bertara bidali beharko dute ondorengo informazioa mezu elektronikora:**

1. Aurkezlearen izena eta bi abizenak
2. Telefono zenbakia, emaila
3. Taldea edo koadrilaren izena
4. Taldekide kopura
5. Euren diseinua eta artxibo horren izena Koadrilarena izanean atxikitu.
6. **Epea maiatzaren 30etik ekainaren 15era.**
7. **Zure kamixeta bandera proposamena saldu iguzu ahalik eta ongien epaitzerako orduan kontuan hartu dezagun. Idatzi laburra.**

BIDALI BEHAR DUZUEN EMAILA: gugeu@bettigotti.eus

Ekainaren 15ean ostiralarekin itxiko da lehiaketara aurkezteko epea. Epamahiari dagokionez berriz, **Betti Gotti hiru kide** proposatuko ditu eta **Antxeta Irratiak beste hiru. Epaitze prozesua, ekainaren 17tik 21era** izango da

SARIAK

1. Saria: Gartzaingo Landakoborda nekazal etxean asteburu bat 8 lagun
2. Irungo Ola Sagardotegian 8 lagunentzako otordua
3. Boga Burgerren Otordu bat 8 lagunentzako

